

Antigua


Pilota eskolaren aurkezpena

Erika Erkizia

Antiguako Pilotazaleok elkar-teak eta Pilota Eskolak bat eginik, 2002-2003 denboraldiko aurkezpen ekitaldia egingo dute igandean, otsailak 2, auzoko frontoian.

Goizeko 10.00etatik aurrera pilota eskolako haurrak ariko dira: 10.00etan benjamin mailakoek jokatuko dute; 11.00etan alebinek; 11.45ean infantilek; 12.30ean kadeteek. Haurren arteko neurketen ondoren, irakasleen erakusketan partida egingo da. Azkenik, bertan bildutako ume guztien argazkia aterako dute.

Nabarmentzekoa da, halaber, urtero bezala, hainbat pilotari egongo direla aurkezpen ekitaldian. Aurten, besteak beste, Mikel Unanue, Juan-txo Koka eta Aimar Olaizola izango dira.



Egoitza berria elkar-teentzat

Antiguako zenbait elkar-te egoitza berria izango dute Xalbador berisolararen kaleko 14 zenbakian. Auzo elkar-te arduradokionez, joan den astelehenean, ikur marxiak dute telefono zenbaki berria (943217209) eta astelenero elkartuko dira, 19.30ean, hain zuzen. Bilerotan auzotar guztiek parte hartu ahal izango dute. Antiguako Kirol Elkar-tea, Antiguako Pilotazaleok eta Mendi Elkar-teak ere Xalbador berisolararen kalean izango dute egoitza.

Otsailaren 16an Takolo, Pirritx eta Porrotx




Bagera elkar-teak antolatuta, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazook "Katxiporreta" ikuskizuna eskainiko dute Pio Baroja kiroldegian, otsailaren 16an, igandea. Pailazook hamabosgarren urte mugaren haritik sortu dute "Katxiporreta" eta bertan, taldeak urteotan guztietan sortutako hainbat pertsonaia eta esketx bildu dituzte. Antiguako biemanaldi eskainiko dituzte: 16.30ean eta 18.30ean. Sarreerak laburki eskuratu ahal izango dira Bilintx megadendan eta Antiguako Garazi liburutendan, datorren astetik aurrera.

Intxaurreondo

Dantza ikastaroa

Bigarren urte jarraian, Intxaurreondo Zaharreko Bizilagunen Elkar-teak eta Plazara Goaz taldeak "Intxaurreondo dantza" ikastaroa antolatuko dute. Ekimenaren xedea auzoan, fandangoa edo muxikakoak bezalako euskal dantzak ikastea da. Iesietan dantzan ari ahal izateko.



Ikastaroa otsailaren 4an hasiko da, eta apirilaren 8a arte, asteartero elkartuko dira Larrotxene Kultur Etxean. Ikastaroaren prezioa 12 euro da (6 euro lanean ari ez direnentzat). Izena emateko epea otsailaren 7a arte egongo da zabalik. Parte hartu nahi duenak Larrotxene Kultur Etxera joan behar du.

Koldo Almandoz Larrotxenen



Ostegunean, otsailak 6, "Berriketan..." zinema egitasmoaren ildotik, Koldo Almandoz aietarra Larrotxenen izango da. Almandozek egindako film labur esanguratsuenak eskainiko dira, tartean Rotterdameko Zinema Jaialdian pantailaratu berri den "Beiarra". Proiekzioen ostean, solasaldia egingo da Emanaldia 20.00etan hasiko da.